

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI TXANTXANGORRI

Bihartik zabalik, sagardo txapelketan izenematea

Sagardo txapelketa antolatu du Txantxangorri elkarteak, beste urte batez. Irailaren 20an izango da, eta bihar zabalduko da izena emateko epea, arratsaldeko 19:00etan. Aurreneko bi egunetan, astelehenean eta asteartean hain justu, elkarteko bazkideek soilik izango dute apuntatzeko aukera. Asteazkene-tik aurrera, berriz, herritar guztientzat zabalduko dute izenematea. Txapelketaren 26garren edizioa izango da aurtengoa. ■

■ HERNANI ZIKUÑAGAKO JAIK

Bakailu, paella eta apar artean, bukaera ederra aurtengo jaiei

Azken eguna dute gaurkoa, Zikuñagako jaiek; eta paellada herrikoiarekin batera, lehiaketa eta txapelketa ugari izango dira: marrazkiak, toka, botea, igela... eta nobedadea, bakailu lehiaketa.

GAUR bukatuko dira Zikuñaga auzoko jaiek, baina egun haundia dute aurretik, hainbat ekin-tza berezirekin. Horietako batekin hasiko dute eguna.

Izan ere, berezia izango da gaur, Zikuñagako Amaren omeneko meza: «ia 40 urte igaro dira, Zikuñagako Amaren ermita bota zela; eta horrekin, auzoko eta herriko historiaren zati bat galdu genuen. Orain, horrenbeste urteren ondoren, galdutakoa berreskuratzeko aukera bat sortu da. Horrek ekarriko du, hernaniarren zaindaria-riarentzat, auzoan merezi duen etxea eraikitzea. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu hau lortzeko lan egin duten guztiei», nabarmendu dute Zikuñagako auzotarrek. Eta berezia izango da meza, baita ere, emanaldia eskainiko duelako Ozenki abesbatzak, bertan.



Atzo bezala, jatekorik eta edatekorik ez da faltako gaur ere. Jaietako argazki guztiak ikusteko: 'www.kronika.eus'

Lehiaketa eta txapelketaz josita, azkeneko eguna

Mezaren ondoren izango da, aurtengo nobedadeetako bat: bakailu lehiaketa. Baina ez da izango eguneko lehiaketa edo txapelketa bakarra, makina bat izango baitira, egun osoan zehar: marrazkiak, toka, botea eta igelarena...

Jumpinga, puzgarriak eta apar festa ere izango dituzte gozagarri, haur eta gaztetxoek; eta dantza egiteko tarterik ez da faltako, DJ Nemuxekin. Eta eguerdian, urteroko zita mahaiaren bueltan: paellada herrikoia izango da.

Jaietako argazkien albuma ikusteko: www.kronika.eus. ■

GAUR, igandea

10:00, Zikuñagako Amaren omeneko meza. Emanaldia eskainiko du Ozenki abesbatzak, bertan.

11:00, Bakailu lehiaketa.

11:00-13:00, Marrazki lehiaketa.

11:00-13:00, Jumping eta puzgarriak.

14:30, Paellada herrikoia.

16:00, Apar festa.

Ondoren, Marrazki lehiaketaren sari banaketa.

17:00, Helduen toka, igel eta bote txapelketa. Arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara eman behar da izena.

17:00-19:00, Jumping eta puzgarriak.

18:30, Txokolatada.

19:00, DJ Nemuxekin dantzaldia.

21:00, Zezen suzkoa, traka eta jaien amaiera.



Atzo irinez, eta gaur aparrez beteko dira, Zikuñagako gaztetxoak.

■ HERNANI AMHER

Bilera bihar, jaialdi gastronomikoa prestatzen hasteko

Nazioarteko jaialdi gastronomikoa antolatuko du Amher elkarteak, beste urte batez, irailaren 29an. Atsegindegin izango da, eguerdiko 12:00etan hasi eta 14:00ak arte. Eta prestatzen hasteko, bilera deitu dute bihar, arratsaldeko 18:00etan, elkar-terean egoitzan (Latsunbe, 42). Bertaratu eta parte hartzeko gonbitea luzatu diete, herritar, elkarte eta mugimenduei. ■

■ ASTIGARRAGA IKASTAROA

Bertan behera, konfiantza lantzeko tailerra

Herenegun hasi, eta iraileko ostiral guztietan egitekoa zen, konfiantza indartzeko tailerra, Astigarragako Emakume Feministak taldeak. Baina bertan behera geratu da, oraingo txandan behintzat; eta urriko kultur agendan jakinaraziko dute, noiz egingo den. ■

■ HERNANI ZIKLOTURISTAK

Zarauzko Urtetara gaur, iraileko bigarren irteera

Gaur egingo du Zikuñaga Ama talde zikloturistak, urteko 24garren irteera. Goizeko 08:30etan Zinkoenean elkartuko dira, eta Urtetara egingo dute joan-etorria, Zarautzera. Guztira, 52 kilometroko ibilbidea osatuko dute. ■

K ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzataberna@gmail.com

musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL ALUZA, 4 - beheko ezberria

MATRIKULA ZABALIK
irailaren 15era arte

KLASEAK ASTE HONETAN HASI DIRA

Ozenki abesbatzaren ensaloak
astearte-osteguna 20:00etan

IRANDEL KAMIÑO
musika eskola

943 33 12 33 - 637 85 79 62

Egin gurekin bat!

Matrikula irailaren 20ra arte irekita

→ Euskaltegiaren etortzeko denbora arazoak dituzu?
Astean 2 eguneko moduluak baditugu.
Autoikaskuntza: ezetik ikasteko.

→ ZORIONAK!!!
HABÉren A1, A2, B1, B2 edo C1 mailako titulua edo EGA agiria ateratu duzun gurtail

→ Diru-laguntza handiak:
%70 Hernanin errolatuta bazaude
%90 langabetu, ikasle edo erretiratuentzat

19/20 ikasturtea

HERNANIKO Udal Euskaltegia
Karobietza 63 (Anbulatorio zaharra)
HERNANI
Tel. 943 331 896
euskaltegi@hernani.eus



GAUR Behe-laino artean hasiko dugu eguna, bereziki kostaldean, eta baliteke euri pikka bat egitea ere. Eguerdian egingo du hobera, eta giro eguztsua nagusituko da arratsaldeko. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da.
Min.14° / Max.21°



BIHAR Giro atsegina izango dugu goizean, eta ostare zabalak irekiko dira. Baina arratsaldetik aurrera, iparraldeko haizearekin behe-lainoak sartuko dira, eta tristetu egingo da giroa. Iluntzerako, euritara jo dezake.
Min.12° / Max.19°



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



ASTIGARRAGA-HERNANI SAGARDOA

Bailarako 18 sagardotegi, Sagardo Txapelketa Herrikoian

Datorren ostiralean hasiko da Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia, Adunan. Ergobiako plazan izango da finala, irailaren 28an.

IRAILEAN izango da, herritarrek urteko sagardo onena aukeratzeko zita nagusia. Datorren ostiralean, hilaren 13an, hasiko da Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia.

Adunan izango da estreinako saio hori; jokatu diren lau semifinalen artean, aurrenekoa. Iluntzeko 20:00etan hasiko dute afaria, frontoian. Lizartzan izango da bigarrena, hilaren 14an, bazkari baten bueltan; eta Orion eta Zornotzan beste biak, 20an eta 21ean, biak ere afariarekin.

Eta final handia, Astigarragan jokatu da: Ergobiako plazan, irailaren 28an, iluntzeko 20:00etan. 300 lagunentzat dago tokiak, eta azkeneko sarreak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen daude salgai:

43 sagardotegik hartuko dute parte, eta horietatik 12 pasako dira finalera.

www.sagardoa.eus, 943 33 68 11 edo info@sagardoa.eus.

Astigarragako 11 sagardotegi eta Hernaniko 7, tartean

Final horretan egoteko lehian ariko dira, beste behin, Uru-mea bailarako makina bat sagardotegi; zehazki, Astigarragako hamaika eta Hernaniko zazpi: Alorrenea, Bereziartua, Etxeberria, Irigoien, Larrarte, Lizeaga, Oialume Zar, Oiarbide, Petritegi eta Rezola astigarrarrik; eta Akarregi, Alberro, Iparragirre, Itxasburu, Larre-Gain,

Otsua Enea eta Rufino hernaniarrak. Ia erdia izango dira, guztira 43 sagardotegi hartuko dituen txapelketan, bere bosgarren edizioan.

Semifinal bakoitzean, 10-11 sagardo dastatuko dituzte, kata itsuan; eta herritarren puntuazioei esker, guztien artean 12 sagardok lortuko dute finale-rako pasea.

Ohitura zahar bati berriro heltzeko asmoz berreskuratu zuen Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, 2015ean, Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia. Izan ere, 1967tik aurrera, zenbait txapelketa herrikoian antolatu zituen orduko sagardogileen elkarteak; eta «herri desberdinekin elkarlanean, sare hori berreskuratzea» izan da asmoa. ||

EREÑOTZU-HERNANI ELKARTASUN ASTEBURUA



Sokatiran ere aritu ziren haurrak, atzo goizean Ereñotzun, Elkartasun Asteburuko ekintzetan.

Sokari tiraka edo pedalei eraginez, elkartasuna auziperatuei

Atzokoa izan zuen egun nagusia, Elkartasun Asteburuak. 11/13 sumarioko auziperatuei babesa erakusteko, haurrentzako jolas eta kirolak, kantujira eta bazkaria izan ziren Ereñotzun, goizean eta eguerdian; eta Hernanin borobildu zuten festa, arratsaldean, Ibaiondo poligonotik Plazara Kronoeskalada eginez, bizikletan, ziztu batean. ||



Kronoeskalada egín zuten arratsaldean, Ibaiondo poligonotik Plazara.

HERNANI IGERIKETA

Ate irekiak etzi, igeriketa taldeak

Probatu eta taldea ezagutzeko aukera izango da kiroldegian, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara.

DENBORALDIA martxan da dagoeneko, Hernaniko Igeriketa Taldearentzat ere. Eta neska-mutil gehiago kirolera erakartzeko asmoz, ate irekien jardunaldia antolatu du datorren asteartean. Kiroldegian izango da, arratsaldeko 18:00etan hasita, ordubeteko saioan.

9 urtetik gorako neska-mutil guztiek izango dute bertan parte hartzeko aukera: «taldeko entrenatzaile eta igerilariekin batera, taldea ezagutu eta proba egin ahal izango dute, ate irekien jardunaldian», aurreratu dute Igeriketa Taldeak.

Gainera, nabarmendu dute taldea «guztiz partehartzailea eta barneratzailea» dela: «bertan dauzkagu, lehiakete-

9 urtetik gorako neska-mutilek izango dute aukera, taldeko entrenatzaile eta igerilariekin egoteko.

tan parte hartzen duten neska-mutilak, parte hartzen ez dutenak, eta baita arazo fisikoren bat dutenak ere. Taldean aukera izango dute igeriketan hobetzeko eta teknikak ikasteko, baina batez ere, primeran pasako dute», diote.

Horregatik, gonbitea luzatu diete, «ura eta uretan ibiltzea gustuko duten neska-mutil guztiei», ate irekietan parte hartzera animatu daitezten. ||

HERNANI TAILERRAK

Auzoetako tailerretan, izenematea orain

Haurrentzako tailerrak antolatuko dituzte aurten ere, auzoetan; eta orain da izena emateko epea, irailaren 13ra bitarte, auzo elkarteetan. 5-11 urteko haurrentzat dira, eta urriaren aurreneko astean hasita, ekainaren bigarren astean bukatuko dira. ||

HERNANI KANTUZ MUSIKA ESKOLA

Gitarra ikastaroko matrikula, bihartik

Bihar zabalduko du epea, Kantuz musika eskolak, gitarra ikastaroko matrikula egiteko. Datorren astean zehar, astelehenetik ostiralera, iazko ikasleek izango dute matrikula egiteko txanda; eta hurrengo astean, irailaren 16tik 20ra, ikasle berrientzat irekiko dute epea. Udaletxeko Herriarren Harrera Zerbitzuan egin behar da. Informazio gehiagorako, Hezkuntza Sailera deitu daiteke: 943 33 70 41. ||

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

LOGIKALINE enpresak INFORMATIKO-PROGRAMADORE lanpostua bete behar du. Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA